“KIROLEAN ARRAZAKERIA SAIHESTEA, KIROLEAN INKLUSIOA SUSTATZEA” WEBINARRAREN KONTAKETA

2021eko apirilaren 14an egin zen, MARTXOAREN 21EAN ARRAZAZKO DISKRIMINAZIOAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEN ZELA-ETA

ON LINE WEBINARRA / KANPAINA

UNESCOk gogorarazten digu, **KIROLA plataforma paregabea dela elkarrizketaren eta kulturen arteko elkar aditzearen balioak sustatzeko,** gizarte inklusioan sakonduz eta genero-berdintasuna sustatuz.

Eta, gainera, gogorarazten digu kirola banantzeko eta diskriminatzeko ere balia daitekeela, eta era eta maila guztietako kiroletan gertatzen dela hori.

Seguru asko, kirol profesional eta elitekoak du inpakturik handiena hedabideetan, baina hori icebergaren ageriko zatia baizik ez da, **zeren eta kirol amateur eta oinarrikoan ere gertatzen baita.**

Kirolak gure gizartea islatzen du, beste gauza askok bezala, eta, horregatik, bada, arrazakeria eta diskriminazioa ez dira gertaera berriak arlo honetan.

Aldaketarik nabarmenena dator **gizartea eta erakundeak ohartzen direnean** eta prebentzio eta sentsibilizazio lanari ekiten diotenean eragile anitzen artean koordinatutako lanetik (erakundeak eta hezkuntzako, gizarteko eta kiroleko eragileak).

Jabeturik zeinen eginkizun handia den hori, BILBOKO UDALAK **xede hauek jarri ditu antolatutako webinarrari buruz:**

> **Gogoeta bat egitea elkarrekin,** gizarte-eragile eta kirol arloko eragileekin, kirolaren arloko arrazakeriaren arazoaz.
> Kirolean arrazakeria saihesteko eta jardunbide inklusiboak sustatzeko **jardunbide onak ezagutu** daitezen sustatzea.
> **Eragileak topa daitezen sustatzea,** hartara harreman-talde bat abiarazteagatik, epe luzeko lan koordinaturako plan bat garatzearren.

ANTOLATZAILEA
ORGANIZA

KUDEAKETA
GESTIÓN

PARTEHARTZAILEAK
PARTICIPAN

Horretarako, programa bat diseinatu da gogoeta eta eztabaida eragiteko, eragile eta gizarte-entitate batzuen eta besteen ekarpenekin, zeintzuek, nor bere arlotik eta lan-ikuspegitik, ekarpena egiten baitute eztabaida aberatsagoa izan dadin eta jakintza sor dadin, gaiaren inguruan era bateko eta besteko ikuspegiak eskainiz.

Webinarraren programa:

WEBINARRARI ERAKUNDE-HASIERA EMATEA, BILBOKO UDALAREN ESKUTIK:
> Itziar Urtasun, Lankidetza eta Bizikidetza Saileko zinegotzia
> Itxaso Erroteta, Gazteria eta Kirol Saileko zinegotzia

WEBINARREAN PARTE HARTZEN DUTE:
> Lilian Thuram, Thuram Fundazioa (Frantzia)
> Laura Sentís eta Aisha Al Said, Barça Fundazioa
> Galder Reguera, Athletic Club Fundazioa
> Gaspar Maza, Universitat Rovira i Virgili
> Sitapha Savané, ACB ligako jolakari izandakoa, ekintzaile soziala eta kiroletako berriemailea
> Aauri Bokesa, atleta olinpiarra, FC. Barcelona eta gizarte langilea
> Antonio Pipaon, WATS Team (Bilbo)

EZTABAIDA EROALE:
> Santos Arrieta, Munduko Medikuak Euskadi

⇒ WEBINARRARI ERAKUNDE-HASIERA EMATEA, BILBOKO UDALAREN ESKUTIK:

Itziar Urtasun Bilboko Udalaren Lankidetza eta Bizikidetza Saileko zinegotziak, bere hitzaldian, kirolaren bi aurpegiak nabarmendu ditu (kirolaren eta gorputz ariketaren poliedroak dauzkan aurpegi anitzen artean), honako hau aipatu nahirik:

- Alde batetik, **nola berreragiten den arrazakeria soziala kirolean, gaitz sozial baten moduan,** eta nola haren kontra beharrezkoa den oso modu espezifikoan jardutea arlo publikotik eta pribatutik, aintzat hartuz kasu eta une bakoitzean alde anitzetatik eragiten duten bortizkeriak eta diskriminazioak.
- Eta, bestetik, **zein aukera handiak dakartzan kirolak, era egokian helduz gero, bakoitzaren eta komunitatearen proiektura,** bizitza bete eta inklusibo bat egiteko, eta gizarte kohesionatu eta berdintasunezko bat eraikitzeko.

Zehaztu du Bilbok **kulturarteko uritzat** agertzen duela bere burua, komunitate eta lurralde geroz eta dibertsoago eta askotarikoago bat, beharrezko dituena ekintza eta kontakizun instituzionalak, sozialak eta herritar bakoitzarenak, kulturarteko bizikidetza inspiratzen duten printzipioen araberakoak, hots: berdintasuna, diskriminazioari ihardukitzea, dibertsitateari balioa ematea, haren abantaila baliatzea eta komunitatean elkarrekiko harreman positiboak eragitea.

Alde horretatik, zinegotziak adierazi du kirol-komunitatea dela, hain zuzen ere, arrazakeriaren eta xenofobiaren kausak jorratzeko leku ezin hobe bat, kausa horiek konplexuak eta arlo artekoak izanik; eta, beraz, baita bi gaitz horiek hautematen ikasteko, gogoeta egiteko pertsonen eta kolektibitateen bizitzetara dakartzaten ondorioez, eta estrategia banakako eta kolektiboak garatzeko, diskriminazioa hainbat mailatan jasaten duten biktimei laguntzearren.

Bere iritzian, uri kulturartekoaren proiektua gizarte kohesiorako eta berdintasunerako eraginkorra izango bada, erakunde, gizarte-eragile eta herritarren baterako ekintza beharko da, eta baita elkarrekiko estrategiak eta aliantza publiko-pribatuak ere.

Itxaso Erroteta Bilboko Udalaren Gazteria eta Kirol Saileko zinegotziak, hitzaldia hasteko, berriki aurkeztu den Bilboko kirolaren estrategia eman du ezagutzera; izan ere, estrategia hori modu malguan formulatu da, ekimen berrietarako irekita utziz, eta Garapen Jasangarriko Helburuekin eta Bilboko Balioen Agiriarekin lerrokaturik. Gorputz-ariketak bizimodu osasungarriko ohitura moduan dituen alderdi onak nabarmendu ditu, eta gainera, gogorarazi du zer ahalmen duen kirolak gizarte-kohesiorako eta integraziorako tresna moduan, herritar guztien eskura egon behar baita, edozein dela ere bakoitzaren generoa, adina, jatorri etniko edo kulturazkoa edo sasoia.

Gaineratu du Udalak bere buruari jarritako helburu estrategikoetako bat dela eta **Bilboren Kirol Estrategia** delakoan jasota dagoela **arlo sozialari dagokion helburua,** eta, haren arabera, kirola politika baten moduan aditzen dela, pertsonen eta komunitateen ongizatea areagotu dezakeen politika baten moduan. Hala, bada, adierazi du **kirol erakundeen aukera eta betebeharra dela pertsona guztiek izatea kirola egiteko aukera, eta kirola berdintasunerako eta gizarte-kohesiorako bitarteko bihurtzea.**

Horretarako, aipatu du azkenik, hiru ekintza zehatz abiaraziko ditu bere Sailak, alegia: Udaleko langile guztien formakuntza; kirola eta kulturartekotasuna eta kultur nortasuna bata bestearekin lotzeko programa espezifiko bi garatzea; eta, azkenik, adierazle-sistema bat ezartzea, **kulturarteko errealitatea kudeatzeko,** hobeto ulertzeko Bilbon gertatzen den kirolaren praktika, eta hobeto kudeatzeko dibertsitatea eta urian dagoen ikuspegi kulturartekoa.

Ezkerretik eskuinera, Itxaso Erroteta eta Itziar Urtasun zinegotziak, beren hitzaldian.

⇒ HIZLARIAK BAKARKA

Behin Udaleko zinegotzien hitzaldiak amaituta, gonbidatuei eman zaie hitza, bi une bereiziz: lehenengoa, bakoitzaren lan arloan, ikasketetan eta esperientzian gako diren gaiez jarduteko; bigarrena, “solas” gisa, parte hartzaile bakoitzak bere ideiak eta ekarpenak libreki adierazteko, Santos Arrieta saio-eroaleak jarritako intereseko gaiei buruz.



Ezkerretik eskuinera eta behetik gora: Sitapha Savané, Galder Reguera, Gaspar Maza, Laura Sentís,
Aisha Al-Said Albella, Llian Thuram, Antonio Pipaon eta Santos Arrieta.

Ondoren, parte hartzaile bakoitzaren ekarpenik esanguratsuenak jasotzen ditugu:

GASPAR MAZA

Gaspar Maza *Antropologia Sozialeko doktorea (Universitate Rovira i Virgili, URV, 1999), Geografia eta Historian lizentziatua (1988), eta Gizarte Hezkuntzako gradu-ondokoa (1989) da, Bartzelonako Unibertsitatearen eskutik. Bartzelonako Udalean, Ciutat Vella barrutiko gizarte-hezitzaile moduan egin du lan, 1987tik 2004ra artean. Irakaslea da Universitat Rovira i Virgili unibertsitatean, 2005etik. Bestalde, 2013tik, irakaslea da Psikologiako, Hezkuntza Zientzietako eta Kiroleko Fakultatean, Ramon Llull Unibertsitatean. Gaur egun, Antropologia eta Giza Eboluzioa Graduko koordinatzailea da (URV).*

Nabarmentzekoa da Kultura eta Kirol Ministerioko Kirolen Goi Kontseiluan parte hartu zuela Kirolaren inguruko Taldearen koordinatzaile moduan, 2010. eta 2011. urteetan.

Berak prestatutako testua aipatuz: “Kirolak ez ditu gizarte-arazoak aldatzen, baina lagundu egin dezake bazterketa-prozesuetan ihardukitzen, eta haien norabidea bestelakotzen; hala, bada, kirol-jarduerak, immigrazioari eta gizarte-bazterketako arazoei dagokienez, bereziki dira lagungarriak, oro har, tresna ezagun baino ezagunagoa baita". Gaspar Mazak dio iceberg-aren oinari buruz ari dela. Alde horretatik, azaldu du kirolak, berez, ez dituela aldatzen gizarte-arazoak, pertsona batek zailtasun hau eta beste dituenean, dela familian, hezkuntzaren arloan, adikzioen inguruan eta abar, baina bai lagun dezakeela hobeto aurre egiten egoera horiei,

deskonpresioa eta ihesbidea eskainiz. Era berean, azaldu du pertsona bakoitzak bere arazoak ekarri ohi dituela, inguru sozial jakin batean egonik, eta desberdinak izaten direla batzuenak eta besteenak, eta, beraz, kirola egokitu egin behar zaiela bakoitzaren beharrizanei, eta ezin dela berdin erabili guztiekin.

Komunitatean esku hartzeaz eta gizarte arloko erakundeek izan dezaketen zereginaz, Gaspar Mazak adierazi du gainditu egin behar direla jardun politikoki zuzenak, eta egunean egunean sortzen diren kirol- prozesuetan lagundu behar dela, hor esku hartzeko sortzen den aukera baliatuz. Hala, bada, gaineratu du ezen, kirolak dakartzan abantailak aipatu behar diren arren, mugak ere seinalatu behar direla, eta saihestu egin behar dela kirola fikzio moduan baliatzea, eta igurikipenak egokitu egin behar direla, jabetuz prozesu sozialak zailak izaten direla eta kirola beste arlo bat dela, ez besterik, bakoitzaren arloen artean. Horra iritsirik, nabarmendu du gai izan behar dugula gizarte batean dagoen diferentziazko egitatea onartzeko, “politikoki zuzena” dena baino harago joanez.

Hala, bada, kirola tresna eraginkorra izan daitekeen arren, eta kontuan hartu beharrekoa gizarte-inklusioko plan eta estrategietan, aurrez aurreko harremana eta elkar aintzat hartzea nabarmendu nahi izan ditu, kirolaren balioak gehiegi goratu gabe, hala gerta baitaiteke ikuspegi kritikorik gabe gidatzen eta baliatzen direnean, eta, bere ustean, jakin beharra dago norantz jo nahi dugun, betiere oinarritik, behetik hasita, iceberg-aren oinetik.

LILIAN THURAM

Lilian Thuram-ek *karrera ospetsua izan du nazioarteko futbolari moduan. Frantziarekin, munduko txapeldun izan zen 1998an, eta Europako txapeldun 2000an. Hainbat liburu argitaratu ditu: "Nire izar beltzak", arrazakeriaren kontrako Seligmann saria irabazi zuena, eta arrakasta handia salmentan", "Berdintasunaren aldeko manifestua"; eta, oraintsuago, "Pentsamendu zuria", oraindik ere argitaratu gabea espainieraz.*

Lilian Thuram-ek, bere izena daraman fundazioan egiten duen lanaz hitz egiteko, lehenik gonbita egin digu gogoeta egin dezagun zeinen ezezaguna den arrazakeriaren historia gizartean. Herritarrak gauza natural baten moduan hautematen du atzenean arrazakeria, auzitan jarri gabe, eta ohitura hutsez, eta, hori dela eta, axola handikoa da arrazakeriaren historia ezagutzea, hura desagerrarazteko; izan ere, ideologia politiko bat da, hau da, hierarkia bat eraikitzeko modua, zeina arrazazkotu egin baita, eta halaxe gaude, arrazazkoturik, gizarte honetan, duela mende batetik hona, eta halaxe bihurtu zen gauza normal bat.

Hala, bada, haren hitzen arabera, esan liteke eragin orokor baten emaitza garela. Ez gara arrazista jaiotzen. Eragin bat jasotzen dugu, gure gurasoen erlijio bera izateko, gure gurasoen hizkuntzak hitz egiteko, eta, atzenean, gizarteak aurkezten dituen pentsamoldeak historiarekin lotuta daude. *"Gure historiaren ondorio gara, eta, hala, ez bazara jabetzen jaso dituzun eraginez, haiek berriz gertarazten dituzte hierarkiak, larruazalaren kolorearen araberakoak, zeren eta orduantxe hasten baitira eragiten hierarkiak, hala nola sexualitatean, eta atzenerako uste duzu gauza normalak direla".*

Thuramek ohartarazten gaitu, gainera, oso arriskutsua dela ez salatzea arrazakeria, zeren eta, *"norberak salatu ezean, onartu egiten baitugu gizartea, dagoen horretan".* Ez dago neutral izaterik arrazakeriaren auzian. Horri dagokionez, kontatu du nola Italian futbolari zela, zaletu batzuek tximuaren keinuak egin zituzten bera joko-zelaian ari zela. Gertaera haiek salatzeko eta jokabide hori jendaurrean agerian jartzeko bere nahia gorabehera, gainerako jokalariek eta klubeko zuzendariek gertaeren garrantzia eta larritasuna gutxitu nahi izan zuten, "*ez da ezer*". Bere ustean, ez ziren jabetzen lagundu egiten zutela hartara gauzak ez aldatzeko *status quo* horretan. Eta, amaitzeko, hau gaineratu du: *"Arrazakeria, gizartean, ez da larria haientzat, eta horregatik ez dira aldatzen gauzak, jendeak iharduki egin beharko lioke arrazakeriari, baina pertsona horiek berek aurreiritziak dauzkate."*

Bere ustean, zaila da mezu hau jendeari helaraztea, kolonien ondoriotasuna ezagutzen ez duelako. Gainera, arrazakeriaz hitz egiteko, utzi egin behar zaio fokua hura pairatzen dutenen gainera zuzentzeari eta, berriz, arrazakeriatik historikoki onura atera dutenei begiratu behar zaie; hori oso eztabaida zaila da, jendeak ez duelako ohiturarik bere buruari galdetzeko zer den zuria izatea, eta eraso egiten zaiela sentitzen du, auzitan jartzea dakarrelako. *"Zu ez zara inoiz ere sartzen larruazalaren koloreari lotutako kategoriaren barruan, zuria zarelako".*

SITAPHA SAVANÉ

***Sitapha Savané**, Senegalen jaio zen, 1978an. Saskibaloiko jokalari ohia da, Unelco Tenerife, Gran Canaria, Joventut eta Estudiantes taldeetan aritua**.** 2017/2018 denboraldia amaitzean, iragarri zuen utzi egingo zuela kirol profesionala Madrilgo talde hartan, 18 urtean profesional izan ostean, eta 18 urte horietatik 15 Espainiako saskibaloiaren goreneko kategorian eman ostean; une horretan, Espainiatik kanpo jaioen artean ACB ligan partida gehien jokatuak zituen jokalaria zen.*

Orain, politika eta enpresari bokazio berrian dabil buru-belarri, esataria da hedabideetan, eta konpromiso soziala agertzen du munduko bidegabekerien kontrako ekintzaile moduan, bereziki arrazakeriaren kontra.

Eta berarekin ekin diogu baloratzeari zer eraginkortasun duten keinu sinbolikoek eta neurri eredugarriek (diziplina-prozedurak, zehapenak, erakundeen jarrerak, adierazpen publikoak eta abar) kirol profesionalaren arloan gertatzen diren egoera arrazistei erantzuteko orduan. Eliteko kirolari moduan duen esperientziaren eta irizpidearen arabera, azaltzen du keinuak garrantzitsuak direla, baina ez direla aski, haiekin batera ez badira neurri eredugarri eta irmoak ezartzen zenbait ekintza zigortzeko edo zehatzeko, zeren eta, nahiz eta bat datorren Gaspar Mazarekin arazoa oinarrian dagoela esatean, agerian jarri nahi baititu kirol profesionalak jendartean duen garrantzia eta eragina, eta, bereziki, gazteengan duen eragina. Horregatik dira hain axola handikoak hedabideetan ematen diren mezuak.

Savanék, halaber, aipatu du zer babesgabezia eta birbiktimizatze egoera jasaten duten zelaian arrazakeriazko jokabideak pairatu behar dituztenek, eta agerian jartzen du nola izango litzatekeen basakeria bat, beste diskriminazio mota batzuetan, biktimari animatzea ezer gertatu ez balitz bezala joka dezan gero, hau da, jokalari bati esaten zaionean: “ez arduratu, segi jokatzen”. Era horretan, nabarmendu nahi da kirola tresna baliagarria izan daitekeela diskriminazio molde batzuk eta besteak desagerrarazteko lanean, baina , gaizki erabiliz gero, diskriminazio horiek indartu ere egin ditzakeela.

Hori dela eta, Sitapha Savanék adierazi du kirolaren inguruan ari diren guztiek dutela zereginen bat arrazakeria kirol profesionaletik desagerrarazteko, diskriminazioa bera jasaten duenak ez ezik, baita taldekideek eta arerioek ere, diren pertsona arrazazkotuak edo ez, eta orobat zuzendaritza talde, federazio, erakunde, gobernu eta liga-erakundeek; hain zuzen, azken horiei dagokie neurririk erabatekoenak ezartzea. Kontuan hartuz kirol profesionalak zer oihartzun izaten duen, oso litekeena da mezua argitasun handiz iristea herritarrengana.

Izan ere, neurriak ez badira argiak, goitik ezarriak izanik, jokalariaren gainera egozten da pisu guztia. Egoera bat sortzen da non, protokolo argi eta eraginkorrik gabe, pertsona horrek erabaki oso larriak hartu behar baititu, eta bere karrera profesionalari ez ezik, bere taldearen lanari ere eragin ahal dio horrek, eta klubak bere helburuak lortzeko edo ez lortzeko orduan ere bai. Hori dela-eta, adierazi du Ligaren egungo protokoloa 2005. urtekoa dela, eta ordutik ez dela inoiz ere eguneratu, izan diren arrazakeriazko gertaera ugariak gorabehera.

AISHA AL-SAID ALBELLA eta LAURA SENTÍS

Aisha Al-Said, zientzia politikoetako lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik eta Lankidetzako Masterra ere bai unibertsitate horren berorren eskutik; 20 urteko esperientzia du garapenerako lankidetzaren arloan. Afrika eta Ameriketako herrialde zenbaitetan programak eta itunak kudeatzen eta ebaluatzen lan egin izan du, dela GKEetan edo MAEC eta AECID direlakoetan. Gaur egun, Barça Fundazioko Aliantzen, Berrikuntzaren eta Ezagutzaren arloko arduraduna da.

Laura Sentísek itzulpengintza eta Interpretazioko gradua du (arabiera hizkuntzakoa) Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, eta Mundu Arabiarra eta Islamiarra graduondoa du egina Bartzelonako Unibertsitatean; bere karrera immigrazioaren eta pertsona iheslarien gaien inguruan egin du. Barça Fundazioan, hasiera batean, Libanon tokian bertan siriar umeei kirolaren bidez laguntzeko programa bat koordinatzen jardun zen, 2 urtean zehar; gero, orain arte, fundazioak gazte migratzaile familia erreferentziarik gabeen enplegagarritasuna sustatzeko gauzatzen dituen proiektuak kudeatu ditu, bai tokian tokiko programekin, bai nazioarteko programekin.

Aishak eta Laurak, hala, Barça Fundazioak inklusioaren arloan "oinarritik hasita" gauzatzen duen lana eman digute ezagutzera, alegia, herrialde batzuetan eta besteetan umeekin lan eginez, eta kirola tresna moduan baliatuz. Kirola, lankidetzazko jolasa eta kirol jarduera teknifikatu gabea eta lehiarik ez eragitea dituzte gako, eta gizarte inklusioa sustatzen eta bortizkeria saihesten laguntzen dute. Hala, era bateko eta besteko gizarte-entitate eta -erakundeekin elkarlanean, era bateko eta besteko programak garatzen dituzte, iheslarien eta gaitasun desberdinak dituzten pertsonen gizarte-inklusioa faboratzearren, eta etnia, arraza, jatorri, genero eta besterengatik eragiten den gizarte bazterketa saihestearren. Horretarako, kirola adingabeekin lan egiteko oinarrizko tresna moduan baliatzeaz gain, saiatzen dira familienganaino eta hezitzaileenganaino iristen, aditzen dutelakio zutabe funtsezkoak direla arrazakeria deseraikitzeko.

Eta, hala, lan ildo horrekin, 2017an, Barça Fundazioak Greziako, Italiako eta Libanoko iheslariei laguntzeko proiektua jarri zuen abian, espazio seguru eta inolako diskriminaziorik gabeak sortzearren, ez genero, ez arraza edo erlijio ez beste ezerengatik bazterkeriarik eragiten ez den lekuak sortzearren, eta harrerako herrialdeetan ume iheslarien ongizatea sustatzearren. Ondoren, 2018an, berariazko lan garrantzitsu bati ekin zitzaion, ezein ahaideren erreferentziarik gabe Kataluniara iristen ziren gazte migratzaileei laguntzeko; oso behar bereziak izaten dituzte, eta laguntza sozial eta hezkuntzazko zabalagoa behar izaten dute, kontuan hartuta gazte horiek inolako ahaiderik gabeko inguru batera iristen direla, eta oso zainketa urriarekin iristen direla 18 urte betetzen dituzten unera, helduarorako bidean balio eta trebetasun sorta handi bat garatu beharrez. Esate baterako, kirola erabiliz berriz tresna nagusietako baten moduan, enplegagarritasunerako trebetasunak lantzen dira gazte horien kolektiboarekin, UEFA Foundation delakoarekin eta Erasmus programarekin elkarlanean +.

Halaber, Laure Sentísek nabarmentzen du ezen, tokian-tokian hezitzaile taldeekin eta parte-hartzaileekin egiten den lanaz gain, erantzukizuna ere sentitzen dutela Barça talde moduan, eta abantaila edo ezaugarri on bat dakarrela horrek: oso bozgorailu indartsuak izatea adingabe horien inguruan dabiltzan kontakizunak aldarazteko. Era horretan, Fundazioa azterlan espezifiko bat ari da gidatzen, argazki objektibo bat lortzearren adingabe horiek Katalunian duten egoeraz, den arlo psiko-sozialean, den osasun mentalaren arloan, eta, aldi beran, kolektibo horiei buruz hedabideetan, prentsa idatzian eta sare sozialetan egiten den tratamenduaren gaineko kontaera nagusiak identifikatzen dituzte, kontaerak aldaraztearren kontatzeko bildu ditugun historia positibo horietatik abiatuz,

Azkenik, Aishak zera nabarmendu du, genero-ikuspegia eranstearren zer lan egiten den fundazioaren proiektu honetan eta bestean. Lanerako ikuspegi horretan, beharrezkoa izan da

adierazleak identifikatzea, proiektuak behatzeko eta ebaluatzeko eginkizunetan sartu beharrekoak; analisirako eta iritzia eratzeko dokumentu bat egitea genero berdintasuna nola sustatu jakiteko; ikuspegi hori arlo guztietan zeharkako bihurtzea, hartarako propio sortutako lan-talde batekin, eta, azkenik, komunikazio-gida bat egitea, hizkuntza ez-sexistaren eta genero-ikuspegiarekiko inklusiozkoaren inguruan.

Beren ekarpena izan da, zehaztu dute, kirola erabiltzea garapen-helburu batzuk lortzeko, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuak.

GALDER REGUERA

Galder Reguera filosofian lizentziatua da Deustuko Unibertsitatearen eskutik, eta Athletic Club Fundazioko proiektu arduraduna 2008tik. Epe horretan, Fundazioak proiektu garrantzitsu bat jarri du abian, gizarte-, kultur-, kirol- eta ingurumen-arloetan garatzen dena, guztira berrogei programa bideratuz, sei mila inguru zuzeneko erabiltzailerengana eta hirurogeita bost mila inguru zeharkako erabiltzailerengana iristen direnak. Galder Reguera, gainera, idazlea da, eta hainbat liburu ditu argitaratuak: "La vida fuera de juego" eta "Libro de familia", esaterako.

Galderrek azaldu digu zer lan egiten duen Athletic Club Fundazioak gizarte-, kultura- eta ingurumen-arloetan eta arlo soziokirolezkoan. Horretarako, Gaspar Mazaren hitzak aipagai zituela, nabarmendu du Fundazioak oinarrian nahiz goian egiten duela lan, usterik aurrera egin behar dela, enblematik abiatuta, ideia positibo bat sustatzeko bidean, hau da Athleticetik eta fundaziotik beretik abiatuta, gizarte jakin baten enbaxadore diren aldetik, baina, aldi berean, egunean eguneko lanari eta lan-taldeekiko lanari helduz.

Berak sumatzen du ezen, azken urteetan, gizarte moduan, lortu dela jokabide horiek dituen jendeak ez izatea lekurik gizartean ezein eremutan, eta diskurtsotik at utzi behar direla. Alde horretatik, gogoeta-lan bat aipatu du, Fundazioak dagoeneko egin zuena, gizartean ez ezik futbolaren arloko kontakizunetan ere izan den aldaketa horren inguruan, eta, hala, hainbat jarduera sustatu izan dituztela (zinema-jaialdia, mintzaldiak eta abar); horrez gain, aipatzen du, berariaz, zeinen esanguratsua den nola kirolari handi batzuek lagundu duten, familia migratzaileetakoak izanik[1] , europar kirol potentzia handiak eratzen futbolaren arloan, erakustera emanez zeinen handia den dibertsitatea kirolean.

Uste du zenbait gauza ezin direla inolaz ere adierazi gizartean, eta adierazi du futbola izan dela kiroleko arlo handietako bat non jokabideak eredu eta praktika moduan garatu izan baitira. Ez arrazakeriaz ari garela bakarrik, baita matxismoaz edo dibertsitate amodiozko-sexuzkoaz ari garela ere.

Athletic Club Fundazioaren proiektu entzutetsuenen artean, bada bat Bakuva elkartearekin elkarlanean landua; Bakuva entitateak urte asko egin ditu Bilbo Zaharrean lanean, familia etorkinetako umeekin lanean, zeintzuek, oso maiz, gizarte-bazterketan erortzeko arriskua baitzuten. Proiektu honi esker, futbol-eskola bat sortu da, eta hainbat talde antolatu dira, liga arauzkoetan lehiatzeko, nahiz eta azken xedea ez zen kirol emaitza, baizik eta jokabide eta jarrera batzuk sustatzea, beren eguneroko lanean lagunduko dietenak. Futbolean jokatzea edo kirola egitea balio bat da, adingabe horiei garatzen laguntzen diena.

[1] Hizlariak, puntu honetan, dokumental bat du aipagai: "foot et immigration, 100 ans d'histoire commune" (futbola eta immigrazioa, 100 urteko historia elkarrekikoa), non ere Manchester United-eko eta Frantziako selekzioko aurrelari Eric Cantonak futboleko izar frantses batzuk biltzen baititu, hala nola Michel Platini edo Luis Fernández edo Zinedine Zidane, eta beren etorkin istorioak kontarazten baitzaizkie, eta orobat aipatzen du beste film bat, "The Three Degrees: The men who changed British Football Forever" (The Three Degrees: Britainia Handiko futbola betirako aldarazi zuten gizonak), non hiru futbolari beltz zelairatu zituen lehen talde ingelesaren historia kontatzen baita (Laurie Cunningham, Cyrille Regis eta Brendon Baston izan ziren jokalariak).

Halaber, nabarmendu du zer onura dakartzan entitate batzuekin eta besteekin sareak eratzeak edo elkarlanean aritzeak gizarte-arloan lan egiteko, eta beste arlo batzuetako talentua eta ezagutza erakartzeko eta baliatzeko, aniztasuna baliotzat hartuz.

ANTONIO PIPAON

Antonio Pipaón Palomino, Ekintzailetzako Gidaritzaren eta Berrikuntzaren inguruko Graduko lehen promoziokoa da (LEINN, Bilbo), eta WATS startup-a sortu zuen beste batzuekin batera, kirolean balioak lantzeko xedea duena; halaber, Stay Bigel sortu zuen beste batzuekin batera, eta Global Shapers Bilbao entitateko kidea da; oso gertutik laguntzen du gazte eta ikasle lizentziatu berrien ekintzailetza eta berrikuntza prozesuetan.

Eta berak aurkezten digu WATS, eta azaltzen nola sortu zen ekimen hori. WATS 2016an sortu zen, Bilbon, kirolari amateur batzuen arduraren emaitza moduan, ohartzen baitziren bortizkeria areagotzen ari zela kirol batzuetako eta besteetako partidetan, Bizkaian eta inguruetan. Erakunde publikoek eta ordezkaritza batzuek eta besteek proposatzen zituzten konponbideen ikuspegia gehiago oinarritzen zen zehapenean ezen ez prebentzioan, eta, hori dela eta, asaldura sortu zen, eta ohartu ziren beste erantzun batzuk behar zirela.

WATS talde indartsu batek eratzen du, zeina profesionalez eta pertsona ospetsu eta goi mailakoez baitago osatua. Haien ikuspegiaren arabera, oinarria da axolazkoa, baina baita ere figura eta idoloak ere, eredutzat hartzen direnak. Era berean, nabarmendu nahi izan du zeinen axola handikoa den entitate publiko edo pribatuekin elkarlanean jardutea, hala nola Bilboko Udalarekin.

Zer eratako bortizkeria aurkitu ohi duten galdetuta, eta batez ere genero-bortizkeriaz eta kultur arloko bortizkeriaz galdetuta, erantzun du badirela era horretako bortizkeriak, baina ikuspegi integral batetik ematen du erantzuna, gertatzen diren bortizkeria mota guztiak aintzat hartuz.

Adierazi du zailtasunik handiena dela kirol sistemaren % 95 oinarriko kirol sistema bat izatea, arlo horretako formaziorik gabeko pertsonek eratzen dutela oinarri hori, eta ez daukatela tresnarik egoera horiek hautemateko eta konponbidea emateko. Bere ustean, prebentzioa lehenago izan beharko litzateke ezen ez alderdi tekniko-taktikoa, oinarriko kirolaz ari garela, eta, oro har, fokua alderdi tekniko-taktikoari baino ez zaio jartzen, edo lehiazkoari, alderdi pedagogiko edo formaziozkoaren kaltetan, zeinaren xedea biolentziaren prebentzioa baita.

Lan integraleko ikuspegi horretatik, kontzientziatzeko, formatzeko eta esku hartzeko ekintzak garatu dituzte, adituz ezen hiru lerroak berdinak direla garrantziaren aldetik. Era horretan, WATS entitateak gai horiek ematen ditu ezagutzera, eta kirolaren arloko langileak formatzen ditu, eta familiak ere bai, eta, azkenik, esku hartzeko eta arreta eskaintzeko bideak eskaintzen dizkie bortizkeria egoerak gertatzen direnerako, saiatuz lagun egiten eta, behar izanez gero, are legearen bidetik ere esku hartzen.
Amaitzeko, Pipaonek nabarmendu du nola aukera ona izan daitekeen “Haurrei eta nerabeei bortizkeriaren kontrako babes integrala emateari buruzko Lege Organikoaren proiektua" WATSen egiten duten lanerako, jarduteko eremu argi bat eratuz.

AAURI BOKESA

Espainiar kirolari bat da, bere karreran saskibaloi eta atletismo denboraldiak uztartu izan dituena, Club Baloncesto Estudiantes Femenino eta AD Marathón taldeetan arituz. Nazioartekoa izan da Espainiako selekzioarekin, kirol bietan, eta, gaur egun, FC Barcelona taldeko 400 metro

lauetako atleta da. Londresko Olinpiadan parte hartu zuen 2012an, eta Rio de Janeiron 2016an, eta hirugarren joko olinpiarrak prestatzen ari da orain. (Gurasoak Ekuatore Gineakoak ditu)

Aauri, gainera, gizarte-langilea da, kolektibo zaurgarrien gizarte-garapenean eta ekintza soziohezkuntzazkoan espezializatua, eta bere bi pasioak batuta, abian jarri du «DXT bizitzarako» programa, baztertuak izateko arriskuan diren adingabeak kirolaren bidez balioetan eta gizarte trebetasunetan hezteari buruzkoa, eta KIrolean Osasuna Babesteari buruzko Espainiako Agentziak (AEPSAD) finantzatua.

Aaurik egoitza batean abegi egin zaien umeak balioetan hezteari buruzko bere proiektua aurkezten du, zeina Kirolean Osasuna Babesteari buruzko Espainiako Agentziak finantzaturik gauzatu ahal izan baitzen. Bere bikote-kide Rodrigo Pardoren laguntzarekin kudeatzen du.

Bere esperientzia eta jakintza baliatuz, Bokesak zenbait baldintza aipatzen ditu, horrelako proiektuek arrakasta izango badute:

- Kirolak berak bakarrik ez du hezten,
- Kirolaren bidez balioetan hezteko beharrezkoa da metodologia bat eta xede batzuk, jarduerak, estrategiak eta ebaluazio-teknikak, helburuak iristeko,
- Kiroleko hezitzailearen figura funtsezkoa da helburuak iristeko; erreferentzia da, eta lagun egiten duen norbait, eta
- Arlo askotako lana, arlo askoren artekoa, eta arlo askotan zeharrekoa funtsezkoa da, zaila baita pertsonengatik eta pertsonentzat lan egitea.

Proiektu hauek, beraz, Donald Hellisonen norberaren erantzukizuneko eta gizarte erantzukizuneko ereduaren metodologian daude oinarrituta, eta badituzte helburu batzuk. DXT proiektuen helburu nagusia da desabantaila sozialeko egoeran dauden gazteen garapen pertsonala eta soziala sustatzea gorputz-ariketaren eta kirolaren bidez, gizarte-bazterketako egoerak saihesten lagunduko dieten balioak transmititzeko bitarteko moduan. Eragin onak dakartzaten ekintzen artean dago "jarduera bereziak" izenekoa, adingabeek hango eta hemengo kirol klubetan eta kirolariekin egiten dituztenak. Norberaren proiektua aberasteaz eta helburuak iristen laguntzeaz landara, adingabeek biziki estimatzen dituzte irteera hauek, non ere kirol mota bateko eta besteko partidetara joateko aukera baitute, eta, are, batzuetan, kirolariak ezagutzeko eta haiekin berba egiteko ere.
Auri Bokesak nabarmentzen du ezen, nahiz eta ugariak izan kolektibo zaurgarrien egoera hobetzeko gizarte-proiektu eta -ekimenak, ez dela aurkitu ohi nahikoa bibliografia gizarte-lana laguntzeko lanbide baten moduan eta kirolaren eta gorputz-ariketaren onurak lotzen dituena. Horren inguruan, uste du ezen, borondate ona egon arren, prozesu horien sistematizazio handiagoa behar dela, eta metodologia-zorroztasuna.

Bere ustean, kirolaren bidezko gizarte-lana sortu izana gizarte-lanaren arloz gaindiko izaerari zor zaio. Gizarte-lanaren eta gorputz-ariketaren eta kirolaren zientzien arteko harremanaren bidez, eta bereziki gorputz-hezkuntza humanistarekiko harremanaren bidez, eta betiere filosofia eta metodologia jakin batzuekin, proiektuak, programak eta jarduerak sortzen dira, desabantaila sozialeko egoeran dauden pertsonen bizimodua hobetzearren eta gizartearen garapena eragitearren. Jarduera horiek gorputz-jarduera eta kirola zeharkako tresna moduan baliatuz gauzatzen dira, kontuan hartuz zer harreman duen subjektuak bere inguruarekin. Ikuspegi holista baten bidez, arlo arteko lan-taldearekin beharrezkoak diren ekintzak gauzatzen dira, eta, haietan, subjektuak berak parte hartzen du, balioak eta trebetasun pertsonalak eta sozialak bereganatzeko prozesuan.

Azkenik, Aaurik argitzen du ezen hezkuntzan kirolaren bidez esku hartuz, hobetu egiten direla gizarte osoaren gorputz-osasuna nahiz buru-osasuna, pertsona erresilenteak eta solidarioak

sortzen direla eta gehitu egiten direla erantzukizun soziala eta norberarena, kolektiboak eta banakoak boteretuz, eta haiei, gainera, osasun-aukera osasungarriak emanez.

⇒ TALDEKO ESKU-HARTZEA ETA HIZLARIEK ELKARREKIN EGINDAKO GOGOETA

Ondoren, bigarren zatiari ekin zaio, non webinarrean parte hartu duten pertsonek erantzun egin baitiete Santos Arrieta eztabaida-eroaleak egiten dituen galderei, era bateko eta besteko ikuspegiak eta iritziak lortzearren gai baten inguruan. Egindako galderetako bakoitzari eman zaizkien erantzunetan izan diren ekarpen nagusiak nabarmentzen dira hemen:

GALDERA: *Badirudi ezen, futbolean beste kirol batzuetan baino arrazakeria eta diskriminazio gehiago izateko arrazoien artean, bat nabarmentzen dela, hots, futbolak gizartean duen ospea, eta zer leku betetzen duen hedabideetan; horren arabera, "ikusgaitasun" edo "oihartzun" berezia eragiten du, beren jarrera arrazistak eta diskriminatzaileak agertu nahi dituzten pertsonentzat eta taldeentzat. Argudio honek ba ote du zentzurik, ala antzeko mailan aurkitu ahal ditugu arrazakeriazko jarrerak beste kirol batzuetan?*

Galder Reguerak abiarazi du eztabaida, eta aipatu du ezen, bere iritzian, futbolean ez dagoela arrazakeria gehiago; aitzitik, uste du futbola dela dibertsitaterik eta bizikidetzarik handiena aurkitu ahal den eremuetako bat. Hori dela-eta, adierazi du eremu horretan pertsona hutsetik hasten dela, eta adierazi du: *"aldagelan sartu eta biluzten zarenean eta taldearen elastikoa janzten duzunean, elastiko hori berdina da aberatsarentzat nahiz behartsuarentzat, berdina emakumearentzat nahiz gizonarentzat, berdina da edozein dela ere bakoitzaren larruazalaren kolorea edo jatorria. Berdintasuna gertatzen deneko eremuetako bat da, eta, berdintasuna gertatzen denez hor, dibertsitate handiagoa ere azaleratzen da".*

Aipatu du jabetu beharra dagoela nola arrazakeriak berriz gertarazten duen gizarte-eskema bat, non jarraitasuna ematen baitzaie zenbait estereotipo betikotzen dituzten kontakizunei. Horretarako, nabarmentzen du beharrezkoa dela futbolaren aniztasuna klase eta espazio guztietara eroatea, eta ordezkoen aulkian dagoen dibertsitatea zuzendaritzara eroatea, futbol-zelaitik gorago.

Ondoren, **Gaspar Mazak** parte hartu du, eta berretsi du ezen, bere ustean, futbola erregea den arren kirolen artean, herrian badirela beste kirol batzuk, gutxiengoenak, eta haiei ere begiratu behar zaiela. Alde horretatik, aipatu du badela arriskua futbola kirol neonazionalismo bat bihur dadin, talderik handienak dituena ordezkari, eta, ordea, badirela beste kirol batzuk ere, eta kiroleko balioak aipatzean, ez garela beti futbolaren gainean ari.

Lilian Thuramek, bestalde, uste du interesgarria dela futboleko arrazakeria aztertzea, lehena baita kirolen artean, erregea, gehien agertzen dena, eta, ondorioz, arrazakeriari ere berak ematen diola agerikotasunik handiena. Ez du esan nahi, zehaztu du, beste kirol batzuetan ez denik arrazakeriarik, baina futbolean jokatzen dena oso interesgarria dela, zeren eta, oro har, arrazakeria harmailetatik etortzen baita, zaleen artetik, zeren eta, gehien batean, futbol zelai bateko zaleak areago geratzen direla ezkutuan ezen ezn beste kirol batzuetan, biltzen den jendetzagatik, eta ezkutuan geratuz arrazakeriazko jokabideak izateko aukera izaten delako.

Adierazi du, halaber, ezen, futbol jokalaria izatea pribilegioa izan arren, arrazakeria ez dela gutxitzen. Hau erantsi du: "bat izan daiteke futbol jokalaria, eta oso ezaguna, aberatsa ere bai, baina beltza zara, artean ere. Tximinoa zara, artean ere, eta ni zu baino hobea naiz". Eta nabarmentzen du hori dela-eta frustrazio bikoitza gerta daitekeela harmailetan daudenen artean, zeren eta pertsona horien ametsa izan baitzen futbol jokalari izatea eta han zelaian egotea, eta horregatik da interesgarria aztertzea nola gertatzen den arrazakeria futbolean.

Adierazi du, halaber, arrazakeria kluben barruan ere aurki daitekeela. Eta azaldu du ezen futbola jokalari moduan biziz, aukera izaten dela dibertsitatean bizitzeko (kulturak, erlijioak...), eta komunitatea, lokarriak eta solidaritatea eratzeko. Helburuak berberak dira, eta harreman sendoak eratzen dira. Alta, zuzendariak aztertzean, desagertu egiten da dibertsitatea. Alde horretatik, nabarmendu du futbolak arrazakeria sorrarazten duela bere baitan. Beste alde batetik, adierazi du ezen, oro har, zaila dela hierarkian gorenen dauden pertsonek arrazakeriaren arazoak defendatzea, zeren eta haien interesa negozioa baita.

Thuramen iritzian, futboleko hierarkian gorantz egin ahala, dibertsitate gutxiago aurkitzen da, eta arretaz aztertuz gero, ugariak dira futbolaren barruan aurki daitezkeen arrazakeria-mekanismoak.

Aisha Al-Said Albellak mahai gainera ekarri du ideia hau: nola futbol-klubek egiten duten lana axolazkoa den futbol-zelaitik harago ere, ondoren komunitateari helarazten zaion zer horretan. Gogoeta horren pean, aipatu du badela behar bat gizartean dauzkagun kontakizunak aldatzeko, eta klubek horri buruz duten erantzukizuna seinalatzen du. Bere ustean, jokalekutik harago doan lan bat egin beharra dakar horrek, hedabideetaraino, komunitateetaraino eta familietaraino iristeko.

Sitapha Savané-k esku hartu du lehen aipatutako ideiak sendotuz. Erantsi du, Thuramek aipatutako ideia batzuk berreskuratuz, nola eztabaidetan joera izaten den arrazakeria morala baizik ez aipatzeko, beharbada politikoki zuzenagoa delako, eta, aitzitik, ez zaiola ekiten egiturazko arrazakeriari, boterearen egiturak eurak ukitzen dituenari.
Bere ustean, ez da halabeharra ez izatea entrenatzaile arrazazkotu askorik eta are eta gutxiago zuzendari arrazazkoturik. Horren inguruan, gogorarazi nahi izan du egoera hori, hemen ez ezik, beste leku batzuetan ere aurki dezakegula, hala nola Estatu Batuetan, askoz dibertsitate handiagoa duelarik. Berriz gogorarazten du kirol arloko arrazakeria gizartearen isla izaten dela, argudio honekin: gizartean zer dagoen, horixe gertatzen da kirolean. Ezin dira bata eta bestea bereizi".

Alde horretatik, Savanék berriz gogorarazi du jendearen artean dauden aurreiritziak ateratzen direla gero kirolean, eta bat dator Thuramekin: futbolak oihartzun handiagoa ematen die mezu horiei.

GALDERA: *dirudienez, kirol esperientzia aditzeko bi forma antagoniko ezarri ohi dira: kirola sozializatzeko elementu/eremu moduan eta arrazakeriaren kontra egiteko eremu moduan, eta, beste alde batetik, errentagarritasuna eta negozioa (klasismoari leku emanez eta gizartean diren desberdintasunak ekarriz). Ezin al dira bi modu horiek bateragarri bihurtu?*

Gaspar Mazak adierazi du litekeena dela harreman bat egotea abiaburuko ideologia politikoarekin, halako moldez non ezkerrekoek uste izaten baitute ez direla bateragarriak negozioa egitea eta heziketarekin zerikusia duten gai horiek, eta, aldiz, eskuinekoek ez izatea horren axolarik.

Aipatu du ezen, gainera, egungo jendartean ekonomia-gaiak gailentzen direla, eta, beraz, jarrera kritikoa hartu ezean, arriskua dagoela gazteei balio batzuk helarazteko eta biharko egunean haiek jarrera erradikalak hartzeko, hala nola "hooliganismoa", zeinak berriz gertatzeko joera baitu.

Gasparren hitzak hartuz, **Galder Reguerak** aipatzen du badela nahaste bat kirolaren historian, oro har, amateurismoa baliotzat agertu ohi duena. Eta azaldu egin du ideia hori, esanez kirolariak profesional bihurtzea XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako borroken ondorioa dela, lana zela aitor zedin aldarrikatzen baitzen, eta, hain zuzen, saihestu

nahi baitzen "langileak" uko egin ziezaiola kirolari aristokraten josteta zelakoan. Alde horretatik, Reguerak ikusarazi nahi du nola kirolaren profesionalizazioa, kirolaren historiarena, oro har, eta futbolarena, bereziki, laneko eskubide batzuk onartzearen aldeko sindikatu-borroken emaitza izan den.

Eta ohartarazi nahi izan du kirola jolas-jarduera huts baten moduan hartzeari buruz, eta kirolariari bere estatutu profesionala ukatzeari buruz, eta nabarmendu du gaur egun futbol-jokalariei agertzen zaien ezagupena hain dela handia ezen ez baitzaie uzten jarrera politiko bat hartzen.

Gaineratu du nola futbol-kluben negozio-alderdiak aukera ematen duen gizarte proiektuak abiarazteko, hala nola Athletic Club Fundazioaren kasuan.

Lilian Thuramek azaldu du zaila dela erakundeentzat kontu horri ekitea, zeren eta futbol profesionalak negozio bat defendatzen baitu, ekonomia bat. Hala, bada, beti bilatuko du kirolaren irudi positibo bat ematea, zeren eta, osterantzean, galera ekonomikoa ekar baitezake.

Jakinik erakundeek beren negozioa babesten saiatuko direla, jokalariek eurek sustatu beharko lukete aldaketa, eta beste norabide bat hartzera behartu beharko lituzkete erakundeak. Puntu horretan, bada, ordea, beste zailtasun bat, zeren eta jokalari profesionalek ere defendatzen baitituzte beren interesak, nork bereak. Arrazakeria salatzen badute, gerta liteke ez izatea irudi ona zaleen aurrean, edo ez lortzea babeslearen babesa, eta beste, eta, beraz, isilik geratzea erabakitzea, nolabait ukatuz egoera horiek gertatzen direna.

Gaspar Mazak berriro parte hartu du eta gogorarazi du ez direla jokalari profesionalak gazteentzat eredu hezigarriak ematen dituzten bakarrak, eta, ordea, zer ikasi anitz eman dezaketela gazteek eurek, gizarte eta familia egoera larrietan aurrera egin behar izaten dutenek. Bere ustean, behera begiratu behar dugu eta egoera horiek aintzat hartu, ikasbide handiak ematen dituztelako, are kirolari profesionalentzat ere.

GALDERA: *Arrazakeriaren eta Intolerantziaren kontrako Europar Batzordeak hainbat gomendio zabaltzen ditu arrazakeriaren kontra egiteko, araudi bat izateaz landara eta estatu barruan aliantza handiak ezartzeaz landara, edo segurtasun eta polizia kidegoei formazioa ematez gain, edo are kiroleko eragile batzuen eta besteen formazio eta sentsibilizazio berariazko bat eragiteaz gain. Egiten al da antzekorik Europan?*

Laura Sentísek adierazi du ezen, litekeena den arren horren inguruko legedia eta gomendioak izatea, benetako orduan ez direla aplikatzen. Alde horretatik, aipatu du jarduteko protokoloak falta direla, hala nola ikusi ahal izan baitzen Valencia-Cádiz partidan, joan den apirilaren 4an[2]; adierazi du beharrezkoa dela aurrera egitea, bakoitzak kasu bakoitzean dukeen rolean eraginez, diren jokalari profesionalak edo hezkuntza-taldeetako parte hartzaileak.

Sitapha Savanék berriz gogorarazi du lehenago esandako ideia bat, alegia, behetik gorako lanaren beharra, nabarmentzeko ezen, eskuarki, eskubideen aldeko aldarrikapen borroka guztiak “behekoek goikoei kenduz” lortu direla. Hala, bada, baieztatu du ez duela batere zalantzarik Gaspar Mazak aipatzen zituen ekarpenen gainean, alegia, oinarritik ere ikasbideak atera litezkeela.

---

[2] Hizlariak, puntu honetan, 2021eko apirilaren 4an (domeka) jokatutako ligako partida du aipagai, Valentzia eta Kadizen artekoa, non ere eraso arrazista bat egin baitzitzaion Valentziako jokalari Diakhaby-ri.

Savanék mahai gainean jarri du, orobat, hedabideen zeregina, laugarren boterearena, eta diskurtsoa zabaltzeko duten gaitasuna. Bere ustean, hori da arazo handietako bat, zeren eta ez baitzaie uzten eztabaidetan parte hartzen, duten erantzukizuna ez delarik txikia.

Era berean, adierazi du ezen, maila profesionalean, ugazaben kontra egiteko jarrera hartzea eta antolatzea oso zaila dela, eta jokalariarentzat, banaka, erantzukizun izugarria dela une jakin batean, segundo gutxi batzuetan, erabaki hain esanguratsu eta oihartzun handiko bat hartzea. Ez bakarrik taldearen denboraldiaren etorkizunagatik, baita ere jokalari horri berorri erantsi ahal zaion estigmarengatik, behin hedabideak desagertutakoan, eta kontuan izanik zer eragin izango duen horrek bere etorkizun profesionalean.

Bere iritzirako, ez da zilegi kirola eta politika nahastea interesa dagoenean bakarrik. Kirol arloko garaipenetan (taldeak irabazten badu, Udalean harrera egiten zaio), eta baita aldarrikapen bat egiten denean ere, zeren eta une horretan sortzen baitira arazoak, eta are gai politiko bat izan gabe ere, zeren eta berdintasunaren alde borrokatzea ez baita kirola eta politika nahastea.

Galder Reguerak galdetu du zergatik kontrajartzen diren negozioa eta balioak. Bere iritzirako, kirolaren eremua eremu adikor bat bihurtzea da eginikizuna. Alde horretatik, zehaztu du negozioaren oinarria familia guneetan egiten den kontsumoa dela. Inork ere ez lituzke seme-alabak eroango leku desatsegin eta baliorik gabeko batera, arrazakeriazko, xenofobiazko edo matxismozko egoerak agertzen diren leku batera.

Era horretan, uste du egia dela jorratzen direla eta saihesten direla futbolean homofobia, arrazakeria edo matxismoa bezalako kontuak, eta, gainera, berak hautematen du babesleak ere aldaketa sozial bat erakutsi nahian dabiltzala.

GALDERA: *Hemen tokian tokikoak ordezkaturik daude, eta gaur, hasiera-hasieratik egiten ari diren gogoeta batzuk direla-eta, noizko koalizio handi bat kirolean izaten den arrazakeriaren kontra, eragile batzuen eta besteen indarrak batuz? Izango al litzateke hori aukera bat tokiko maila eta komunitate maila uztartzeko? Ba al dugu esperientziarik eredutzat hartzeko? Nondik has daiteke, zuen ustean, Bilbo?*

Gaspar Mazaren ustean, kirol kultura dagoeneko errotu da gizartean, eta jende askoren pentsaeran finkatu da. Ohartarazi du gehiegikeriaz erabiltzen direla zenbait balio maila sinbolikoan, eta gerta litekeela ahitzea eta agortzea gehiegi erabiltzearen poderioz, eta lortu nahi denaren kontrakoa lortzea. Bere ustean, axola handikoena da kirola parte hartzeko eremu bat dela, eta gauza asko egin daitezkeela, eta hori lortuta dagoela dagoeneko.

Galder Regueraren ustean, funtsezkoa da erabat arrazakeria zer den aditzea, hala nola matxismoa edo homofobia, gaitz sozialak baitira, eta haiek desagerraraztea ez da pairatzen duenaren eta ez beste inoren eginkizuna. Alde horretatik, ñabardura batzuk aipatu ditu, esanez ezen mundu hobea eta kirol hobea nahi izanez gero, eta eremu bat gure umeek kirola eginez pertsona moduan garatzeko, gaitz horiek erauzi behar direla kiroletik.

Reguerak tinko adierazi du ezen garai honetan adierazpen askatasuna gaizki erabiltzen dela, guztiz baztertu beharko liratekeen arrazoibideei leku egiten bazaie: *"Jardun eta jardun arrazakeriaz, matxismoaz eta homofobiaz. Arazoren bat izanez gero horiek direla eta, ez zara gure artekoa, ez zara gure taldekoa, ez zara futbolaren mundukoa eta kanpoan utziko zaitugu".*

Galderren hitzak baliatuz, **Antonio Pipaon**ek adierazi du entitate publiko eta pribatu handi nahiz txikiek batera egin behar dutela arraunean, norabide berean. Konponbide integratzaileak propoatu ditu, tokiko mailan, erakundeetan eta kirol- eta gizarte-entitateetan zerikusia duten eragileei parte harraraziz.

WEBINAR

2021ko **APIRILAREN 14**an
12:00etatik **14:30**etara > **ZOOM** (izena eman dutenekin partekatuko da esteka)

KIROLEAN ARRAZAKERIA SAIHESTEA INKLUSIOA SUSTATZEA KIROLAREN BIDEZ

MARTXOAREN 21EAN ARRAZA-BEREIZKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA

UNESCOk gogorarazten digu **KIROLAK plataforma paregabea eskaintzen duela kulturen arteko elkarrizketaren eta elkar ulertzearen balioak sustatzeko**, gizarteratzean sakonduz eta genero-berdintasuna sustatuz.

Baina kirola zatitu eta bereizteko ere erabil daitekeela gogorarazten digu, eta hori edozein mota eta mailako kiroletan gertatzen da.

Ziurrenik, kirol profesionalean eta eliteko kirolean izango du eragin mediatikorik handiena, baina hori da **oinarrizko kirolera eta kirol amateurrera** iristen den icebergaren zati ikusgarria.

Kirola gure gizartearen beste isla bat da, eta arrazakeria eta diskriminazioa ez dira fenomeno berriak arlo honetan.

Aldaketa esanguratsua prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzeko **kontzientzia kolektiboa eta instituzionala hartzean** datza, eragile askoren (instituzionalak, hezkuntzakoak, sozialak eta kiroletakoak) lan koordinatutik abiatuta.

Oharturik zeinen erronka handia dugun aurrean, BILBOKO UDALAK **helburu hauek proposatu ditu jardunaldirako:**

- **Gogoeta bat abiaraztea**, gizarte- eta kirol-eragileen artean partekatua, kiroleko arrazakeriaren arazoaz.
- Arrazakeria saihesteko **jardun-molde egokiak** ezagut daitezen sustatzea, eta orobat inklusiozko praktikak kirolaren bidez.
- **Eragileak elkar daitezen sustatzea**, harremanetarako talde bat era dezaten epe luzerako lan koordinatu bat gauzatzearren.

BILBOKO UDALEKO IREKIERA INSTITUZIONALA:

- **Itziar Urtasun**, Lankidetza eta Bizikidetza saileko zinegotzia
- **Itxaso Erroteta**, Gazteria eta Kirol saileko zinegotzia

WEBINAR PARTEHARTZAILEAK

- **Lilian Thuram**, Thuram Fundazioa (Frantzia)
- **Laura Sentis eta Aisha Al Said**, Barça Fundazioa
- **Galder Reguera**, Athletic Club Fundazioa
- **Gaspar Maza**, Universitat Rovira i Virgili
- **Sitapha Savané**, ACBko jokalari ohia, gizarte ekintzailea eta kirol esataria
- **Aauri Bokesa**, Atleta olinpikoa, FC. Barcelona eta Gizarte langilea
- **Antonio Pipaon**, WATS Team (Bilbao)

MODERATZAILEA:

Euskadiko Munduko Medikuak

NORENTZAT:

- Kirol klub eta entitateak, Bilboko eta Bizkaiko oinarriko kirolari arreta berezia emanez.
- Arbitraje eta entrenamendu eskolak.
- Begiraleak/Hezitzaileak eta Aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak.
- Gizarte hezitzaileak eta langileak.
- Gizarte integratzaileak.
- Immigrazioaren, kulturartekotasunaren eta arrazakeriaren prebentzioaren arloko gizarte--entitateak.
- Erkidego, foru edo udal teknikariak (immigrazioa, kirola, gazteria...).
- Kirol arloko kazetariak.
- Interesdunak, oro har.

IZENA EMATEA:

https://bilbao.zoom.us/webinar/register/WN_yuYdMYlVT9iQR-eGNbAdbw

WEBINAR

14 DE ABRIL de **2021**
de **12:00** a **14:30** > **ZOOM** (link facilitado a personas inscritas)

PREVENIR EL RACISMO EN EL DEPORTE PROMOVER LA INCLUSIÓN DESDE EL DEPORTE

CON OCASIÓN DE LA CONMEMORACIÓN DEL **21 DE MARZO, DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA DISCRIMINACIÓN RACIAL**

UNESCO nos recuerda que **el DEPORTE proporciona una plataforma única para promover los valores del diálogo y del entendimiento intercultural**, ahondando en la inclusión social y promoviendo la igualdad de género.

Pero también nos recuerda que el deporte se puede utilizar para dividir y discriminar, y esto ocurre en deportes de cualquier tipo y nivel.

Probablemente es en el deporte profesional y de élite donde cobra un mayor impacto mediático, pero ésta es solo la parte visible del iceberg que **llega hasta el deporte base y amateur**.

El **deporte es otro reflejo más de nuestra sociedad**, y así el racismo y la discriminación no son fenómenos nuevos en este campo.

El cambio significativo viene de la **toma de conciencia colectiva e institucional** para trabajar la prevención y la sensibilización desde el trabajo coordinado de múltiples agentes (instituciones, educativos, sociales y deportivos).

Conscientes del enorme reto que tenemos por delante, el AYUNTAMIENTO DE BILBAO se plantea los siguientes **objetivos relacionados con el webinar:**

- Iniciar una **reflexión compartida** entre agentes sociales y deportivos sobre la problemática del racismo en el deporte.
- Propiciar el **conocimiento de buenas prácticas** relacionadas con la prevención del racismo y prácticas inclusivas a través del deporte.
- **Promover el encuentro de agentes** para dar inicio a un grupo de contacto que pueda desarrollar un plan de trabajo coordinado a largo plazo.

APERTURA INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO:

- **Itziar Urtasun**, concejala de Cooperación y Convivencia
- **Itxaso Erroteta**, concejala de Juventud y Deporte

PARTICIPANTES WEBINAR:

- **Lilian Thuram**, Fundación Thuram (Francia)
- **Laura Sentís y Aisha Al Said**, Fundación Barça
- **Galder Reguera**, Fundación Athletic Club
- **Gaspar Maza**, Universitat Rovira i Virgili
- **Sitapha Savané**, Exjugador ACB, activista social y comentarista deportivo
- **Aauri Bokesa**, Atleta olímpica, FC. Barcelona y trabajadora social
- **Antonio Pipaon**, WATS Team (Bilbao)

MODERA:

Médicos del Mundo Euskadi

PÚBLICO DESTINATARIO:

- Clubs y entidades deportivas, con un fuerte enfoque en el deporte base bilbaíno y bizkaino.
- Escuelas de arbitraje y entrenamiento.
- Monitorado y Escuelas de Tiempo Libre y Animación Sociocultural.
- Educadoras/es y Trabajadoras/es Sociales.
- Integradores/as Sociales.
- Entidades sociales del ámbito de la inmigración, la interculturalidad y la prevención del racismo.
- Personal técnico municipal, foral, autonómico (Inmigración, deporte, juventud...).
- Periodistas de secciones deportivas.
- Personas interesadas en general.

INSCRIPCIÓN:

https://bilbao.zoom.us/webinar/register/WN_yuYdMYlVT9iQR-eGNbAdbw

ANTOLATZAILEA
ORGANIZA

KUDEAKETA
GESTIÓN

PARTEHARTZAILEAK
PARTICIPAN

AL RACISMO
TOLERANCIA
0
TOLERANTZIA
ARRAZAKERIAREKIN
BILBAO
KULTURA ARTEKO HIRIA
CIUDAD INTERCULTURAL
OBJETIVOS
DE DESARROLLO
SOSTENIBLE
ZAs!
FUNDAZIOA
Bilbao